

# KULTURKRITIKA


» LIBURUA

## Frogatu baino frogatuago



Aritz Galarraga

@aritzgalarraga



### Eldarnioak

KARLOS LINAZASORO

Erein, 1991

Hogeita bost urte bete ditu Karlos Linazasorok. Ez biologikoak, bistan da, nahiz ederki asko kontserbatzen den: gutxi batzuk gehiago dituela dio, espainiarra dela esateaz gainera, bere nortasun agiriak. Ez du ematen, bete-betea baitago gizona: 2016 honetan bakarrik atera ditu *Trilogia hiperlaburra* eta *Zerua beti beherago dago*. Luze gabe, iazkoan kaleratu zuen *Literatura hiztegi tekniko laburra*, liburu kritikari auskalo ausartegi bati “Linazasororen obra gorena izan daitekeena” atera ziona.

Hogeita bost urte literario bete ditu, beraz, Karlos Linazasorok. 1991n argitaratu baitzuten estreinako, ez bat, bi liburuak. 1991ko urrian *Udazkeneko karabana erratua*, eta aurretik, ekainean, *Eldarnioak*. Hasieretatik erakutsi zuen, hartara, bere ibilbidea markatu duen ezaugarrietako bat: superproduktzioa. Orain hamar urte, hamabost zeramatzanean, zenbatu bagenizkion hogeitaz liburutik gora, orain hogeita bost daramatzala gainditzen ditu erraz berrogeiak. Matematiketan trakets dabilenarentzat: asko-asko argitaratu duela.

Baina beti ez omen zen izan horrela. Hona ekartzeko aukeratu diogun *Eldarnioak* narrazio liburuan, zera irakur daiteke azal hegalean: “Barruan zeraman literaturzaletasun lo zorro xamartua, erabat esnatuko zen Tolosako Udal Liburutegiko ardura hartzearekin batera” –bide batez, bibliotekari hiltzaile ez bereziki abil bat du protagonista *Dowstowngo kronika* ipuinak-. Hori bai, hasi bazen, ez gelditzeko egin zuen. Eta hasi zen gerora bere ibilbidea markatu duten elementuak erakusten: ahots askotarikoak, kezka konstanteak, umore korrosiboak.

Joxemari Iturralde herrikideak idatzi zuen, estreinakoaren atzeko azalean: “Liburu honek maila berezi bat, goi-maila bat lortzen du, narrazio ezberdinak irakurtzen joan ahala, gero eta gorago ezarriz doana”. Denboraren perspektibarekin erraza da, baina, liburuko ipuinak gero eta aurrerago maila igotzen doazen arren, ados, esango nuke Iturraldek aipatzen duen maila berezi hori, goi-maila hori aurrerago lortzen duela Linazasorok, beste liburu borobilago batzuekin, aspaldi handian ez abandonatzeko gainera.

Eta zentzu horretan adosago nago Felipe Juaristi kritikagileak adierazi zuenarekin: “Lehen ipuin bilduma izanik, liburuak ematen duenaz gain, bertan agertutakoen arabera espero izatekoak direnak ere kontutan hartu beharrekoak dira. Testu, gozagarri ugari damaizkigu, baina hau inportantea eta euskal literaturan ez-ohizkoa izanik ere, ez da garrantzi gutxiagokoa erakusten duen potentzialidadea”. Denborarekin, eta bibliografia ezin interesgarriago batekin, frogatu baino frogatuagoa geratu den *potentzialidadea*. ■



Karlos Linazasoro Izagirre (Tolosa, 1962) idazle emankorra.